



# DURANGO



## ARMARRIAREN DESKRIBAPENA

Hondo urdinean, uhin urdin eta zilarrezkoen ganean, hiru begiko zubia, bi dorre garairekin, guzti-guztia donjonatua eta almenatua. Begiak, atea eta leihoak urdinean, eta dorreen artean otso baltz igarolari bi paluan eskerralderantz. Dorreen ganean eta buruan “Tavira” irakurri lei urrezko hizkiakaz.

## AITAMEN HISTORIKOA

Durangoko uria, antxina Villanueva de Tabira deitua, Bizkaiko uririk zaharrenetarikoa da, ezelango zalantza barik. Bide gurutze baten eta izen bereko merindadeko buru, hasiera batean Nafarroako erreinukoa izan zan eta erreinu horretako erregeren baten agindupean sortu zan, baina ezin dogu zehaztu noiz sortu zan.

Aurkitu ditugun agirien arabera Durangoko lurraldea aitatzen dauan zaharrena 1051ekoa da. Agiri hori Gartzia Najerakoak, Nafarroako erregeak, eta Iñigo Lópezek –“*rector in illa patria que dicitur Vizcaia et Durango*”– egin eben donazio bateri buruzkoa da.

Ziurrenik Durangoko Uria Antso VI.a *Jakitunaren* (1150-1194) edo Antso VII.a *Azkarraren* (1194-1234) erregetzaren garaian sortuko eben, erregeon ezaugarrietariko bat, batez be lehenengoarena, uriak sortzeko eta indartzeko politika zan eta.



## DESCRIPCIÓN DEL ESCUDO

En campo de azur y sobre ondas de agua de plata y azur, un puente de tres arcadas, con dos torres altas, todo donjonado y almenado, aclaradas de azur ojos, puertas y ventanas, y entre las dos torres dos lobos de sable puestos en palo pasantes a la siniestra. Sobre las torres y en jefe, la leyenda “Tavira”, en letras de oro.

## RESEÑA HISTÓRICA

La villa de Durango o Villanueva de Tavira, como se llamó en la antigüedad, es, sin duda, una de las más antiguas de Bizkaia. Cabeza de la merindad del mismo nombre, Durango, enclavado en una encrucijada de caminos, perteneció en su primera época al reino Navarro. Fue bajo algunos de sus reyes cuando se produjo la fundación de la villa, sin que se pueda precisar, con exactitud, la fecha de su nacimiento.

En el año 1051 encontramos el primer documento en el que aparece el territorio de Durango. Es una donación del rey navarro García el de Nájera junto con Iñigo López “*rector in illa patria que dicitur Vizcaia et Durango*”.

Se dan como fechas más probables de su fundación la época de los reinados de Sancho VI, *el Sabio* (1150 a 1194) o Sancho VII, *el Fuerte* (1194-1234), reyes que se caracterizaron (sobre todo el primero de ellos) por su política fundacional y de asentamiento de villas en su reino.